

2014ko azaroaren 27an, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Batzorde Zuzentzaileak izandako batzarrean, besteak beste, ondokoa erabagi dala:

8.- GIZARTE HEZIKETARAKO ESKU HARTZE ZERBITZUAREN ESLEIPENA ONARTZEA

Xedea

Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzuaren esleipena onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2014ko urriaren 23an, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko kontratazio mahaia batu da Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzuaren esleipenerako proposamenak aztertzeko.

Bigarrena: Agintzari kooperatiba izan da proposamena aurkeztu dauan elkarte bakarra, 130.500 euroko proposamena egin daualarik. Txosten teknikoa egin da.

Hirugarrena: Agintzari Kooperatibak esleipenerako baldintzak betetzen dauzala ikusita eta dokumentazio guztia zuzen aukeztuta, 2013ko azaroaren 7an, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko kontratazio mahaia Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzua Agintzari Kooperatibari esleitzea proposatu dau 130.500 eurogaitik.

Laugarrena: Esleipenerako beharrezko dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin jako Agintzari Kooperatibari eta dokumentazio guztia zuzen aurkeztu dau.

Argudioak

Espedientea behar bezala izapidetu da

Erabagia

Lehenengoa: Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzua Agintzari Kooperatibari esleitzea 130.500 eurogaitik. (BEZatik salbuetsita dago)

Bigarrena: Kontratua sinatzea 2014ko abenduaren 1etik 2015eko azaroaren 30era.

